

Bizikletaren paradisia

KRISTINA GOIKOETXEA

Bizikleta zurien plana hile honetan gauzatuko dute



Amsterdamen aurki daitezkeen bizikleta zurien postuetako bat.

BIZIKLETEK AMETS EGINEN BALUTE, Holandan bizitzea izango litzateke haien ametsa. Izan ere, han ez dira inoiz bakarrik sentituko, 15 milioi biztanleko herrialdean 15 milioi bizikleta daudelako. Bizikletek ez dute bidea autoekin egin beharrik, 10.000 kilometroko bidegorria baitago. Ez dute beren jabeaz aspertu beharrik, 900.000 bizikleta lapurtzen baitira urtero. Horretaz gain, era guztietako jandea ibiltzen da bizikletan: punkiak, ejekutiboak, amamak...

Hala ere, badute desabantailik: jabeek gehiegi zamatzen dituzte. Atzeko aldean batzuetan neska-laguna edo mutil-laguna joaten dira, edo biak batera, eta aurreko aldean zortzi anai-arreba, nahi izanez gero. Esku batekin gidatzen dute gainera, beste eskuan euritakoa edo txakurra hedeaz helduta daramatelako. Holandarrentzat, bizikleta gorputzaren beste atal bat da, ez garraioa. Oi-

nez ibiliko balira bezala ibiltzen dira bizikletan. Esaterako, bakoitza bere bizikletan eskutik helduta joaten dira maitaleak.

Holanda laua da, hori jakina da. Baina, bizikletaren erabilera handia azaltzeko, ez da hori zio nahikorik. Bizikletaren erabilera asko bultzatzen da han, eta, maiz, bizikletaren aldeko ekimenak ez datoz agintarien aldetik. 60ko hamarkadan Amsterdamgo gazte batzuek *bizikleta zuria* egitasmoa proposatu zuten. Amsterdamen bizikleta erabili nahi

zuen ororentzat, 10.000 bizikleta zuri musu truk jartzea pentsatu zuten. Egitasmoa, ordea, ez zen bete. Orduko egitasmoaren bultzatzaile nagusia Luud Schimmelpenninck jauna izan zen. Orain, jadanik, ez da hirurogeiko hamarkadako gazte idealista, baina *bizikleta zuria* egitasmoarekin aurrera egin du, eta azkenean martxan jartzea lortu du. Datozen egunetan gauzatuko da.

• Kristina Goikoetxea •

Luud Schimmelpenninck

BIZIKLETA ZURIAK EGITASMOAREN ASMATZAILEA

«Bizikleta zuriek garraio publikoa osatzen dute Amsterdamen»

Luud Schimmelpenninck urteetan *bizikleta zuria* egitasmoaren atzetik ibili da. ideia 60. hamarkadan izan zuen, eta ordutik beti izan du buruan ideia gauza zitekeela. Plana zertan den jakiteko berarengana joan gara, bizikletaz jakina.

■ **Nolakoa da bizikleta zuria plan berria?**

20 lekutan 20 aparkaleku jartzean dago gakoa. Aparkaleku bakoitzak 12 edo 13 bizikleta eta zutoin bat ditu. Zutoineko alde batean bi telefono dauka, eta beste aldean bizikletentzako panela.

■ **Eta bizikleta dohainik hartzen da?**

Ez, florin bat ordaindu behar duzu, zure banku txartelaren bitartez. Aurrez, panelean, zure bidaiaren jomuga sakatu behar duzu (adibidez, 22 zenbakia = udaletxea edo 23 zenbakia = geltokia). Segituan, zure txartela sartu behar duzu. Ordenagailuak zure datu guztiak hartzen ditu, florina hartzen du, eta bizikleta bat askatzen du zuretzat.

■ **Eta bizikleta horrekin egun osoa ibil daitezke?**

Ez, ordu erdi daukazu beste lekura joateko, ordenagailuak han leku bat gorde baitu zure bizikletarentzat. Bizikleta egun osoarako nahi izanez gero, dendaren batean bat alokatzea da hobena. Gure plana autoa ez hartzeko aukera bat da; lanera joateko edo gauean irteteko. Garraio publikoak osatzen ditu.

■ **Baina Amsterdamgo jende guztiak bizikleta dauka, ezta?**

Bai, baina denak ez dira erdigune aldekoak. Gehienak hiritik kanpoko auzoetan bizi dira, eta autoz etortzen dira hona. Orain, tranbia edo trena erabil dezakete, eta hiri erditik gure bizikleta zuriekin mugitu.

■ **Turistentzat ere oso alternatiba ona dirudi.**

Bai. Turistentzat ere ideia ona da. Hoteletan eta aterpeetan txartel batzuk banatuko ditugu. Bezeroak bere gela uzten duenean txartel horren erabilpena ordain dezake, telefonoaren antzera.

■ **Bizikletak dohainik jartzea gehitxo eskatzea da, ezta?**

Amsterdamgo Udalak, zoritxarrez, ez du egitasmoa dohainik jarri izan nahi. Bestalde, bizikletak dohainik jartzen badituzu, azkenean beti desagertzen dira.

■ **Eta, erabiltzailearen datuak izanda ere, bizikletak desagertzen badira?**

Dena gerta daiteke, baina uste dut oso zaila izango dela. Hasteko, zuriak direlako (Amsterdamgo mundu guztiak daki bizikleta zuria bereziak direla). Bizikletaren kuadroa oso lodia da eta «Postbank» leloa du jarrita. Gorpilak urdinak dira, eta oso gogorak. Diseinu berezi hori ez dago beste bizikletekin nahasterik.

■ **Bizikleta zurien ideia hori hirurogeiko hamarkadatik dator, ezta?**

Bai, guk autorik gabeko hiria nahi genuen. Orduan, hiri erdia ixtea eta 10.000 bizikleta zuri dohainik jartzea proposatu genuen. Udalari aurkeztu genion gure egitasmoa, baina ez zen inoiz martxan jarri.

■ **Hirurogeiko hamarkadatik hona ez al duzu beste ahaleginik egin?**

Jakina, beti horren alde borrokatu naiz. 1974an 4 lekutan jarri genituen aparkalekuak. Hura dohainik zen; bost florineko txanpon bat sartzen zenuen eta bueltatzean zure txanpona jasotzen zenuen berriro. Baina ez zuen hain ongi funtzionatu. Betikoa, bizikletak galtzen ziren, edo bat-batean aparkaleku bat hutsik geratzen zen, bizikleta guztiak erabiltzen ari zirelako...

■ **Azkenean pozik egongo zara zure egitasmoa gauzatu duzulako.**

Bai, oso pozik. Beharbada pentsatuko duzu horren atzean ia 40 urte egotea denbora luzeegia dela. Baina egitasmoa urteekin asko hobetu da. Lan handia egin behar izan dugu, baina seguru nago aurrera joango dela. Eta bizikletei garapenak jartzen badizkiegu, beharbada gure plana Euskal Herrira eramango dugu.

• Kristina Goikoetxea •

AMSTERDAM